Asteasuko Udaleko bitarteko idazkariak alde aurreko txostena eta proposamena eman du.

---

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Roteta, Arrikarte, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Horregatik guztiagatik, Udalbatzak


#### ERABAKIA EMAN DU

LEHENENGOA. Onestea ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAK ESKAINIKO DITUEN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK ABIAN JARTZEKO ETA GARATZEKO BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK EMATEKO 24 UDALEN HITZARMENA, erabaki honen I. Eranskinean jasotakoa.

BIGARRENA. Ahalmena ematea Asteasuko Alkatetzari, Asteasuko Udalaren izenean hitzarmena sinatzeko, eta hori betetzeko hartu behar diren egintza, erabaki eta ebazpen guztiak hartzeko.

I. ERANSKINA / ANEXO I

---



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

---

---

## HITZARMENA

### BILDU DIRA

CRISTINA RODRIGUEZ MENDICUTE anderea, ADUNAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordei jarraikiz

REGINA SORARRAIN LASA anderea, ALEGIAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordei jarraikiz.

IÑAKI XABIER IRAZABALBEITIA FERNANDEZ jauna, ALKIZAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordei jarraikiz.

XABIER OLANO JAUREGI jauna, ALTZOKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordei jarraikiz.

BEATRIZ UNZUE ESNAOLA anderea, AMASA-VILLABONAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordei jarraikiz.

MIKEL ARTEAGA ZABALA jauna, NAN, XXXXXXXX, AMEZKETAKo Udalaren izenean eta hura ordezkartuz, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeak baliatuz, irailaren 1eko alkate-ebazpena egikartuz.

EGOITZ LUISA URKOLA jauna, NAN, XXXXXXXX, ANOETAKo Udalaren izenean eta hura ordezkartuz, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeak baliatuz, irailaren 5eko alkate-ebazpena egikartuz.

MARIA PILAR LEGARRA CORTAJARENA anderea, ASTEASUko Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX M, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

UGAITZ GARMENDIA AURKIA jauna, BALIARRAINgo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN, XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

ANDONI ZURIARRAIN ITURBE jauna, NAN XXXXXXXX, BERASTEGIko Udalaren izenean eta hura ordezkartzen, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeak baliatuz, irailaren 4ko alkate-ebazpena egikaritzuz.

AITZOL IZQUIERDO DIAZ DE GUEREÑU jauna, BERROBIko Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

MIREN AGURTZANE CELAYA ARANDIA anderea, BIDEGOIANgo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

OIHANA AMUNDARAIN ZUBILLAGA anderea, NAN XXXXXXXX, ELDUAINgo Udalaren izenean eta eta hura ordezkartzen, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeak baliatuz, irailaren 5eko alkate-ebazpena egikaritzuz.

IGOR ZAPIRAIN LIZARRIBAR jauna, IBARRAko Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

ALBA GARMENDIA CASTAÑOS anderea, IKAZTEGIETAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz, Alkate dekretuak 2023ko uztailaren 24an hartutako ebazpenak egikaritzuz.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

GORKA MURUA MACUSO jauna, IRURAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz, Alkate dekretuak 2023ko uztailaren 27an hartutako ebazpenak egikaritzuz.

MARIA TERESA ARANA PEREZ anderea, LARRAULgo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz, Ohiko Udalbatzarrak 2023ko uztailaren 21ean hartutako ebazpenak egikaritzuz.

JOSE RAMON EIZAGIRRE SORONDO jauna, LEABURU-TXARANAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN jauna, LIZARTZAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan , NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

MIGUEL ANGEL ARSUAGA AZURMENDI jauna, ORENDAINGo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

GURUTZE ETXEZABAL ITURRIOZ anderea, OREXAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI jauna, TOLOSAko Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz, Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko uztailaren 11n hartutako ebazpenak egikaritzuz.

SINAb9dfbaF0-d4e5-40a9-b31d-3d3216db7ed5

MAITE AMENABAR ALCORTA anderea, ZIZURKILGo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN XXXXXXXX, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordei jarraikiz.

Alderdiek hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta horren arabera

Bere edukia ondorengoa da:

## **KLAUSULAK**

### **1.- Hitzarmenaren xedea eta udal bakoitzak egin beharreko jarduerak**

Lankidetzaz-hitzarmen honen xedea da ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxeak eskainiko dituen jarduerak eta zerbitzuak abian jartzeko eta garatzeko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak ematea. Horretarako, Inpernu kaleko 5, 7 eraikinak eta Emakumeen plazako 1 eraikina, Tolosako Udalaren titulartasunpekoak direnak, erabiliko dituzte hitzarmen hau sinatzen duten 24 udalek, Tolosaldean feminismoaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten emakume eta kolektibo guztien erreferentziazko topagune eta errekonozimendu gisa, emakumeen ahalduz kolektiboa, feminismoaren hedapena eta eskualdean berdintasuna sustatzea bultzatuz.

Helburu horiek lortzeko, lankidetzaz-hitzarmen hau sinatzen duten 24 udalek konpromisoa hartzen dute ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxeari jarduera garatzeko behar beste baliabide ekonomiko eta giza baliabide emateko, urteko aurrekontu-partida bat esleitzuz eta hornituz, hitzarmenaren iraupenaren mende egongo dena.

### **2.- Udal bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak**





ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen funtzionamendu egokia bermatuko duen finantzaketa lankidetzaz hitzarmen hau sinatzen duten 24 udalen artean partekatuko da.

**Batetik, Tolosako Udalak**, Inpernu kalea 5, 7ko eta Emakumeen plazako lokalen jabe den aldetik, amaitutako ekipamenduaren inbertsio osoa finantzatu du:

- Tolosaldeko Emakumeen Etxearen obra-aurreproiektua, **8.385,30 euroko gastuarekin**.
- Proiektua idaztea eta obra-zuzendaritza, guztira **33.540,00 euroko gastuarekin**.
- Eraberritzeko oinarrizko proiektua eta exekuzioa, guztira **597.709,22 euroko gastuarekin**.
- Altzariak hornitzea eta instalatzea: **93.775,00 euroko gastuarekin**

**Guztira: 733.409,52€**

Parte hartzeko prozesuetatik eratorritako kostuak:

- 2018an lehen parte-hartze prozesua: **18.089,49 euroko gastua**
- 2019an komunikazio jarduerak: **2.796,59 euroko gastua**
- 2019an errefortzu teknikoa: **4.737,33 euroko gastua**
- 2020an **1.949,41 euroko gastua**
- 2021ean bigarren parte-hartze prozesua: **11.707,20 euroko gastua**

**Guztira, 39.280,02 €**

**GUZTIRA: 733.409,52 + 39.280,02= 772.689,54 €**

Gainera, Tolosako Udalak ekarpen ekonomiko bat egingo du Tolosaldeko beste 23 udalekin modu proportzionalen eta partekatuan, sortutako gastuei aurre egiteko, honako gastu hauetarako:

- Mantentze-lanak (ura, elektrizitatea, garbiketa, gasa, etab). Berdintasun Sailak eraikinak arlo horrek urtero programatzen dituen jarduerak eta zerbitzuak garatzeko erabiltzetik eratorritako gastuak ordainduko ditu.
- Eraikinak eta altzariak konpontzeak eta birjartzeak eragindako gastuak
- Jardueren eta programen garapena
- Emakumeei arreta eta aholkularitza juridiko eta psikologikoa eskaintzeko Etxean ematen diren zerbitzuak.
- Ez ditu finantzatuko etxea dinamizatzeko zerbitzuak eragindako gastuak.

**Bestalde, gainerako 23 udalek** modu proportzionalen eta partekatuan aurre egiteko gastuak finantzatuko dituzte, honako hauetarako:

- Mantentze-lanak (ura, elektrizitatea, garbiketa, gasa, etab.)
- Eraikinak eta altzariak konpontzeak eta birjartzeak eragindako gastuak
- Jardueren eta programen garapena
- Emakumeei arreta eta aholkularitza juridiko eta psikologikoa eskaintzeko Etxean



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ematen diren zerbitzuak.

- Tolosaldeko 23 udalek finantzatuko dute etxea dinamizatzeko zerbitzu osoa.

Eranskinetan jasotzen diren zenbatekoak gutxi gorabeherakoak dira, 2022an egindako azterketa ekonomikoaren arabera ezarriak.

Udal bakoitzak egin beharreko ekarpenaren irizpidea ekitaldian aurreikusitako diru-sarrera arrunten baturatik ateratzen den zifraren urteko zenbatekoaren arabera ezarriko da?

### **3.- Likidazio- eta ordainketa-araubidea**

Hitzarmen honek eragindako gastuak Tolosaldeko 24 udalek ordainduko dituzte, bakoitzak duen partaidetzaren arabera. Guztizko kostua 380.880,00 eurokoa izango da. (I. Eranskina, 3. taula), Beraz, Udalek kreditu egokia eta nahikoa izan beharko dute hitzarmena gauzatzeko eragingo dizkien betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko.

Tolosaldea Garatzen, S.A.k dagozkien gastuen tarifak igorriko dizkie Tolosaldeko 24 udalei. Dokumentazio hori egiaztatu ondoren, Udal bakoitzak, urteroko ekainaren 30eko epean ordainduko du horri dagokion zenbatekoa. I. Eranskinean jasotako kostuak aurreikuspenak dira eta aldaketak egon daitezke bertan jasotako kopuruen eta urteroko likidazioaren artean (benetan izandako kostua txikiagoa edo handiagoa izan daiteke). Urteroko likidazioa egiterakoan izandako kostuen kitapena egingo da, hau da, izandako gastua aurreikusitakoa baina handiagoa bada, udal bakoitzak dagokion zenbatekoa ordainduko du; gastua, aldiz, aurreikusitakoa baina txikiagoa izan bada, udal bakoitzak Tolosaldea Garatzeni diferentzia itzultzeko eskatuko dio.

### **4.- Hitzarmenaren eta hartutako konpromisoen jarraipena eta zaintza egiteko, eta betetzen direla kontrolatzeko mekanismoak.**

#### **4.1.- Hitzarmenaren Jarraipen eta Kontrol Batzordea**

Jardueren jarraipena eta kontrola egiteko sistema bat ezarriko da, bai eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko sistema ere.

##### **4.1.- Batzordearen osaera:**

Batzorde hori 4 pertsonak osatuko dute:

Tolosako Udaleko ordezkari bat.

Tolosaldeko udaleko 2 ordezkari.

Idazkaritza teknikoaz arduratuko den pertsona bat: deialdiak bidali eta bileren aktak idatzi beharko ditu.

Batzorde hori izango da hitzarmen hau sinatzen duten 24 udalen arteko lankidetzarako bidea, bai eta interpretazio-arazoak konpontzeko, hitzarmenaren betearazpenaren jarraipena egiteko eta hartutako konpromisoak betetzeko bidea ere.

Erabakiak adostasunez edo kontsentsuz hartuko dira; adostasunik ez badago bozkatu egingo da, gehiengo soilaren bidez hartuko da erabakia. Idazkaritza teknikoak ez du bozketan parte hartuko.

##### **4.2.- Jarraipen eta Kontrol Batzordearen eskumenak**

ANDRAGORA, Emakumeen Etxeak eskaintzen dituen zerbitzuen kudeaketaren eta finantzaketaren kontrola, ebaluazioa eta jarraipena egitea.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Hitzarmen honen klausulak interpretatzea.

Hitzarmen honen edo haren aldaketen bidez 24 udalek hartutako konpromisoak ez betetzeagatik aldebakarreko salaketa jarri aurreko txostena egitea.

Zerbitzuen kudeaketari lotutako zuzeneko edo zeharkako kostuak finantzatzearen aldeko aurretiazko txostena egitea, finantzaketa partekatuaren atalean adierazitakoaren arabera.

Hitzarmena aldeztatik azkentzen bada, Jarraipen eta Kontrol Batzordeak txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu.

Abian diren jarduketak amaitzeko moduari buruzko ebazpena, bai eta horiei aplikatu beharreko likidazioa ere, hitzarmena aurretiaz azkentzen bada.

#### **4.3.- Jarraipen eta Kontrol Batzordearen eginkizunak**

Batzordea osatzen duen edozein pertsonak eskatutakoan bilduko da, eta bilera horien akta egingo da. Akta horretan, eztabaidatutako alderdiak eta lortutako akordioak jasoko dira, eta bertaratutako ordezkari politikoek sinatu beharko dute.

Batzordeko edozein kidek proposatuta, Tolosaldeko 24 udaletako beste ordezkari batzuek ere parte hartu ahal izango dute Batzordearen bileretan. Batzordearen bilerak baliozkotzat jotzeko, Lankidetzaren hitzarmen honetako 1. atalean aipatutako pertsona guztiek egon beharko dute bertan.

Lehenengo urtean, Jarraipen eta Kontrol Batzordea hilean behin bilduko da, eta, ondoren, hiru hilean behin egin ahal izango da.

Ezohiko bilerak behar adina aldiz bildu ahal izango da, alderdietako edozeinek

SINAB9dfbaF0-d4e5-40a9-b31d-3d3216db7ed5

eskatuta.

## **5.- Indarrean sartzea**

Lankidetzeta-hitzarmen honek 4 urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Beti ere, baldintzatuta egongo da, Tolosaldea Garatzen elkarteari egindako enkargua. Lankidetzeta-hitzarmenean aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmena sinatu duten 24 udalek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere beste lau urtez.

Indarraldiaren edo luzapenaren barruan, hitzarmen hau aldatu ahal izango da, baldin eta udal guztiek hala adosten badute. Edozein aldaketa idatziz jaso beharko da, udalek sinatu beharko dute. Tresna honi eranskin gisa gehituko zaio.

## **6.- Hitzarmena azkentzea**

Hitzarmen hau azkendu egingo da haren xede diren jarduketak betetzen ez direnean edo hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak hauek izango dira:

- Indarraldia igarotzea, luzatzea erabaki gabe.
- Sinatzaile guztiek, aho batez, hala erabakitzea.
- Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak, edo horien aldaketak ez betetzea. Kontratua iraungitzeak konpromiso eta betebeharrak ez dituen udalarentzat izango ditu ondorioak.

Kasu horietan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duen alderdiari, epe jakin batean bete ditzan hartu gabekotzat jotzen diren



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori txosten baten bidez jakinaraziko zaio Hitzarmenaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeari.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, hori zuzendu zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoia gertatu dela, eta hitzarmena suntsituzat joko da. Arrazoi hori dela-eta hitzarmena suntsiarazten bada, eragindako kalteak ordaindu beharko dira.

- Erabaki judizial batek hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko.
- Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita ez dagoen beste edozein arrazoi sortzea.

Hitzarmena aldez aurretik azkentzen bada, Jarraipen eta Kontrol Batzordeak ebazpen-proposamen bat egin eta horren berri emango du, eta udal sinatzaile bakoitzak onartu beharko du. Proposamen horretan, honako hauek azalduko dira: egiten ari diren jarduerak amaitzeko modua, jarduera horiei aplikatu beharreko likidazioa eta ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxean zerbitzuak ematen jarraitzeko mekanismoak.

## 7.- Hitzarmena suntsiaraztearen ondorioak

1.- Hitzarmen hau betetzeak eta suntsiarazteak horiek likidatzea ekarriko du, alderdi bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazte aldera.

2.- Hitzarmen honetatik eratorritzen diren finantza-konpromisoak betetzat joko dira, hitzarmenaren xedea alderdiek beren eskumenen arabera bete dutenean, betiere honako arau hauek kontuan hartuta:

a) Likidaziotik ondorioztatzen bada udalen batek egindako diru-ekarpena txikiagoa dela

benetan izandako gastua baino, likidazioa onartu eta gehienez ere hilabeteko epean ordaindu beharko dio Tolosaldea Garatzeni dagokion zenbatekoa.

b) Likidaziotik ondorioztatzen bada udalen batek egindako diru-ekarpena handiagoa dela benetan izandako gastua baino, udal horrek eskatu beharko dio Tolosaldea Garatzeni diferentzia itzultzeko.

3.- Aurrekoa gorabehera, hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat gertatzen denean egikaritze-bidean diren jarduketak badaude, hitzarmen honetako udalek, hitzarmenaren Jarraipen eta Kontrol Batzordearen proposamenez, edo, halakorik ezean, abian diren eta bidezkoztat jotzen dituzten jarduketekin jarraitzea eta amaitzea erabaki ahal izango dute, eta epe luzaezin bat ezarri ahal izango dute horiek amaitzeko. Epe hori igarotakoan, jarduketan likidazioa egin beharko da, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera.

## **8.- Udal bat Lankidetzaren Hitzarmenari atxikitzea**

Azterketa ekonomikoa udal berriak hartutako konpromisoen arabera arautu beharko da.

Hitzarmen hau sinatu duten udal guztiek onartu beharko dute, eta, ondoren, beste lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko da, edo eranski modura atxikituko da.

## **9.- Alderdien lankidetzaren betebeharra**

Parte hartzen duten udalen lankidetzaren adierazpena, Hitzarmen honetan hartutako konpromisoei dagokienez lankidetzaren aritzeko konpromisoa hartzen baitute, bai eta hitzarmen honen xede diren jarduerak egiteko eta zerbitzuak emateko baliabideak emateko konpromisoa ere.

## **10.- Datu pertsonalen babesa**





ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Sinatu duten 24 udalek konpromisoa hartu dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzko arauak ezartzen dituena) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko.

### **11.- Araubide juridikoa**

Lankidetzeta-hitzarmen honen izaera administratiboa da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen VI. kapituluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena garatu eta betearaztean alderdien artean sortzen diren auziak, 5.2 klausulan aurreikusitako Jarraipen eta Kontrol Batzordean ebatzi ezin direnak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

### **12.- Eranskinak (erabakiari atxikitu dira)**

**ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN KALKULUOAK  
GASTU KOMUNAK**

	SARR. ARRUNTAK			BANAKETA	
	herria	2.022	%	2023	2024 eta 2025
1 Aduna	1.038.600,00	0,02	567,89	1.576,25	
2 Alegia	2.260.861,26	0,04	1.236,20	3.431,23	
3 Alkiza	505.082,00	0,01	276,17	766,55	
4 Altzo	724.369,00	0,01	396,07	1.099,35	
5 Amezketeta	1.286.729,00	0,02	703,56	1.952,82	
6 Anoeta	2.852.150,00	0,04	1.559,50	4.328,61	
7 Asteasu	2.617.200,00	0,04	1.431,04	3.972,03	
8 Baliarrain	258.515,00	0,00	141,35	392,34	
9 Berastegi	1.255.245,41	0,02	686,35	1.905,04	
10 Bidania	753.693,57	0,01	412,11	1.143,85	
11 Berrobi	670.023,65	0,01	366,36	1.016,87	
12 Elduain	536.289,48	0,01	293,23	813,91	
13 Gaztelu	271.397,00	0,00	148,39	411,89	
14 Ibarra	5.167.036,87	0,08	2.825,24	7.841,83	
15 Ikaztegieta	608.953,11	0,01	332,96	924,19	
16 Irura	2.579.415,00	0,04	1.410,38	3.914,69	
17 Larraul	367.737,00	0,01	201,07	558,10	
18 Leaburu	503.788,00	0,01	275,46	764,58	
19 Lizartza	795.000,00	0,01	434,69	1.206,54	
20 Orendain	264.375,63	0,00	144,56	401,23	
21 Oresa	249.391,67	0,00	136,36	378,49	
22 Tolosa	28.569.762,00	0,44	15.621,43	43.359,32	
23 Villabona	6.870.246,75	0,11	3.756,53	10.426,73	
24 Zizurkil	3.535.407,63	0,05	1.933,10	5.365,56	
<b>TOTALA</b>	<b>64.541.269,03</b>	<b>1</b>	<b>35.290</b>	<b>97.952</b>	

	2023	2024-2025
MANTENUA	10.000	29.200
ZERBITZUAK	11.246	31.752
** enkarguaren eredia	1.694	
JARDUERAK	12.350	37.000
<b>TOTALA</b>	<b>35.290</b>	<b>97.952</b>

**TOTALA**

herria	sarr. Arruntak	%	2023			2024			2025			GUZTIRA
			DINAMI	KOMUNA	GUZTIRA	DINAMI	KOMUNA	GUZTIRA	DINAMI	KOMUNA	GUZTIRA	
Aduna	1.038.600	0,016	685,35	567,89	1.253,24	1.800,25 €	1.576,25	3.376,50 €	1836,26	1.576,25	3.412,50	8.042,24
Alegia	2.260.861,26	0,035	1.491,90	1.236,20	2.728,10	3.918,85 €	3.431,23	7.350,08 €	3997,23	3.431,23	7.428,46	17.506,64
Alkiza	505.082	0,008	333,30	276,17	609,46	875,48 €	766,55	1.642,03 €	892,99	766,55	1.659,54	3.911,03
Altzo	724.369	0,011	478,00	396,07	874,07	1.255,58 €	1.099,35	2.354,93 €	1280,69	1.099,35	2.380,04	5.609,04
Amezketeta	1.286.729	0,020	849,09	703,56	1.552,65	2.230,34 €	1.952,82	4.183,17 €	2274,95	1.952,82	4.227,77	9.963,59
Anoeta	2.852.150	0,044	1.882,09	1.559,50	3.441,59	4.533,76 €	4.328,61	9.272,36 €	5042,63	4.328,61	9.371,24	22.085,19
Asteasu	2.617.200	0,041	1.727,09	1.431,04	3.158,08	4.536,51 €	3.972,03	8.508,54 €	4627,24	3.972,03	8.599,27	20.265,89
Baliarrain	258.515	0,004	170,59	141,35	311,94	448,10 €	392,34	840,43 €	457,06	392,34	849,40	2.001,77
Berastegi	1.255.245,41	0,019	828,32	686,35	1.514,66	2.175,77 €	1.905,04	4.080,81 €	2219,29	1.905,04	4.124,33	9.719,80
Bidania	753.693,57	0,012	497,35	412,11	909,46	1.306,41 €	1.143,85	2.450,26 €	1332,54	1.143,85	2.476,39	5.836,11
Berrobi	670.023,00	0,010	442,14	366,36	808,49	1.161,30 €	1.016,87	2.178,25 €	1184,61	1.016,87	2.201,48	5.188,23
Elduain	536.289,48	0,008	353,89	293,23	647,12	929,57 €	813,91	1.743,48 €	948,17	813,91	1.762,07	4.152,68
Gaztelu	271.397	0,004	179,09	148,39	327,49	470,42 €	411,89	882,31 €	479,83	411,89	891,72	2.101,52
Ibarra	5.167.036,87	0,080	3.409,64	2.825,24	6.234,88	8.956,25 €	7.841,83	16.798,08 €	9135,38	7.841,83	16.977,20	40.010,17
Ikaztegieta	608.953,11	0,009	401,84	332,96	734,80	1.055,53 €	924,19	1.979,71 €	1076,64	924,19	2.000,82	4.715,34
Irura	2.579.415	0,040	1.702,11	1.410,38	3.112,49	4.471,01 €	3.914,69	8.385,70 €	4560,43	3.914,69	8.475,12	19.973,31
Larraul	367.737	0,006	242,66	201,07	443,74	637,41 €	558,10	1.195,52 €	606,16	558,10	1.208,26	2.847,52
Leaburu	503.788	0,008	332,44	275,46	607,90	873,24 €	764,58	1.637,82 €	890,70	764,58	1.655,28	3.901,01
Lizartza	795.000	0,012	524,61	434,69	959,30	1.378,01 €	1.206,54	2.584,55 €	1405,57	1.206,54	2.612,11	6.155,96
Orendain	264.376	0,004	174,46	144,56	319,01	458,25 €	401,23	859,49 €	467,42	401,23	868,65	2.047,15
Oresa	249.391,67	0,004	164,57	136,36	300,93	432,28 €	378,49	810,77 €	440,93	378,49	819,42	1.931,13
Tolosa	28.569.762	0,443	0,00	15.621,43	15.621,43	–	43.359,32	43.359,32 €	0,00	43.359,32	43.359,32	102.340,06
Villabona	6.870.246,75	0,106	4.533,56	3.756,53	8.290,09	11.908,50 €	10.426,73	22.335,23 €	12146,67	10.426,73	22.573,40	53.198,72
Zizurkil	3.535.407,63	0,055	2.332,96	1.933,10	4.266,05	6.128,08 €	5.365,56	11.493,64 €	6250,64	5.365,56	11.616,20	27.375,90
<b>TOTALA</b>	<b>64.541.268,38 €</b>	<b>1</b>	<b>23.737,00 €</b>	<b>35.290,00 €</b>	<b>59.027,00 €</b>	<b>62.351,00 €</b>	<b>97.952,00 €</b>	<b>160.303,00 €</b>	<b>63.598,02 €</b>	<b>97.952,00 €</b>	<b>161.550,00 €</b>	<b>380.880,00 €</b>



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## SEIGARREN PUNTUA

**Laguntza eta kalte-ordainei dagozkien ordainketen araubidea aldatzea.**

**Laguntza eta kalte-ordainei dagozkien ordainketen araubidea aldatzea.**

2023ko ekainaren 17an eginiko aparteko bilkuran Udalbatza berria osatu zenez, eta apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 32 artikuluan jasotakoarekin bat, arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten toki-erakundeko kideek bakarrik kobratu ahal izango dute bertaratzeengatik. Horrekin, karguari dagozkion kide anitzeko organoetara, bileretara edo jardueretara benetan joatea ordainduko da, eta ordezkari-tza-karguaren erantzukizunarekin lotutako eginkizunak. Osoko bilkurak zehaztuko ditu korporazioko kide bakoitzak urtean gehienez ere zenbat jaso ahal izango duen bertaratzeengatik. Halaber, aipatutako 2/2016 Legearen 34 artikuluan jasotakoarekin bat, Udal-talde politikoek diru-sariak jasotzeko eskubidea izango dute; sari bat finkoa eta berdina izango da talde guztientzat, eta bestea, aldakorra, ordezkari kopuruaren arabera, ordezkari horiek esleitu zaizkien eginkizunak duintasunez burutu ahal izateko. Osoko bilkurak finkatuko ditu ordainsari horiek ezartzeko eta esleitzeko irizpideak.

Talde politikoak Udalbatzako lehendakariari zuzendutako idazki baten bidez eratuko dira, Udalbatza osatu nahi duten kideek sinatuta. Idazki horretan, taldeko kide izateko borondatea, izena eta bozeramailearen eta, hala badagokio, hura ordeztu dezakeenaren izena adieraziko dira (ETELen 34.5 artikulua). Horrekin lotuta, 2023/07/11an aurkeztutako idatzien bidez Udal Talde hauek eratu direla jakinarazi zitzaion Udalbatzako lehendakariari:

- Sarrera zenbakia: 670  
ASTEASUKO EAJ-PNV Udal Taldea  
Kideak: Aitziber Egaña Callejo  
Ordezkari eta bozeramailea: Aitziber Egaña Callejo
- Sarrera zenbakia: 672  
ASTEASU BATUZ Udal Taldea  
Kideak: Maria Pilar Legarra Cortajarena, Larrantz Alkorta Aizpurua, Pedro Maria Izagirre Sarasola, Aitor Usandizaga Izaguirre, Amaia Agirre Arrastoa, Xabier Roteta Erkizia, Iosu Arrikarte Otegui, Iosu Omeñaca Alcorta  
Ordezkari eta Bozeramailea: Maria Pilar Legarra Cortajarena

Hala, Udalbatzak, 2023ko uztailaren 11ko bilkuran, erabaki zuen Asteasuko Udaleko 2023 urteari dagokion Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 10.2 artikuluan jasotako kopuruak mantentzea. Dena den, Alkate andreak jakinarazi zuen aipatu kopuruak eguneratzeko proposamena egingo zuela laster, izan ere, horiek ez dira berrikusi 2011

SINAB9dfbaf0-d4e5-40a9-b31d-3d3216db7ed5

urtetik aurrera, eta hori egiteko aurretik Udal Aurrekontu Orokorretan beharrezko kopurua txertatu behar zelako.

Jarraian, uztailaren 28ko 2023/230 Alkatetza Dekretuaren bidez, Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente onartu zen (Kreditu Aldaketa 2023/05, kreditu gehigarrien modalitatekoa) eta, bestetik beste, 1 0000.231.912.00.01 2023 aurrekontu-aplikazioa gehitu egin zen.

Amaitzeko, Alkate andreak 2023ko urriaren 16an proposamena egin du, aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 10.2 artikuluan jasotako kopuruak aldatzeko.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Roteta, Arrikarte, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak,

## ERABAKIA HARTU DU

BAKARRA. 2023 urteari dagokion Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 10.2 artikuluan jasotako kopuruak aldatzea eta, bere ondorioz, Udal-talde politikoen diru-sariak, arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten toki-erakundeko kideek izango dituzten bertaratzeak, eta toki-erakundeetako kideek beren karguak betetzean benetan egindako gastuen kalte-ordain hauek onestea:

- Udal-talde politiko bakoitzari dagokion diru-kopurua: alde batetik kopuru finkoa jasoko dute: 150,00 euro hileko; eta bestalde, kopuru aldakorra: 50,00 euro hautetsi bakoitzarengatik.
- Beren karguak dedikazio eskusibo edo partzialez betetzen ez dituzten udalbazkideentzat erabakitako ordainsariak, eta osoko bilkuretan, indemnizazio gisara erabakitako kopuruak hauek dira:
  - Batzorde Informatzaileetako lehendakariak: 300,00€/hilaro.
  - Zinegotziak: 50,00€ Osoko Bilkuran parte hartzeagatik.
- Gehienezko kopuruak:
  - Informazio - Batzordeetako Lehendakariak, hilabeteko gehienez 300,00 euro gordin.
  - Gainontzeko Zinegotziek, hilabeteko gehienez 50,00 euro gordin.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ZAZPIGARREN PUNTUA

### **Mozioak:**

- **2023/02: EAeko Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurkako adierazpena**

Alkate andreak hitza hartu du. Asteasu Batuz Udal Taldeak aurkeztu duen mozioa UEMAtik jasotakoa da, azken honek bultzatutakoa. Hasiera batetik ulertu zuen UEMA berak bultzatu eta aurkeztuko zuela aipatu mozioa, baina amaieran hausnartu da udal bakoitza izatea mozio horren bultzatzaile. Hori azken orduan egin da, eta horregatik ez du denbora eman EAJ-PNV Udal Taldearekin elkarren artean bultzatzea. Dena den mozio hori bi Udal Taldek bultzatutzat jotzea egokitzen ematen du.

Egana andreak hitza hartu du. Ados dagoela adierazi du eta, bere ondorioz, proposatu den mozioa bi Udal Taldeek bultzatuta izango da.

Hau da mozioa:

### ADIERAZPENA

Gaur jakin dugu EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin dituela Eusko Jauriaritzaren 179/2019 Dekretuaren hainbat artikulua. Udal Legea garatzen du dekretuak, eta hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak uztailean Udal Legeari buruz emandako epaiaren ostean, Dekretuaren aurka egin du Auzitegi Nagusiak. Epai hauek euskararen ofizialtasuna bera ere zalantzan jartzen dute, askotan Udal Legeak arautzen ez dituenak ere aurreikusiz, modu prebentiboan.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalarekin onartu zuen epaitegiek baliogabetu nahi duten Udal Legea, eta azken Inkesta Soziolinguistikoa ere argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hauek euskararen biziberritzearen aurkakoak ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoak ere badira. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen dute auzitan.

Horren aurrean, honako hau adierazpen hau egin nahi du Udalak:

1. Kezkaz eta larritasunez hartu dugu euskararen indarberitze-prozesuaren aurkako epai hau. Testuingurua ere kontuan hartu behar da: azkenaldian gisa bereko epai batzuk iritsi dira, eta guztietan berbera izan da norabidea. Epai

hauek traba dira urteotan euskara sustatzeko bidean adostasun handiz eraiki den orubearentzat.

2. EAeko Auzitegi Nagusiaren epaiak bete-betean eragiten die UEMAk eta bertako kide diren udalek urte askoan jorratutako lan-ildoei: hizkuntza-plangintzari eta kontratazioari, adibidez. Udalak helburu nagusien artean du udalerrian euskara normalizatzea eta herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta sententzia honek oztopoa besterik ez dakar. Hori jarri baitu ezbaian auzitegiak: euskararen normalizazioa. Euskara lehenestearen aurka egin du, gaztelania baztertzea delakoan. Ez da halakorik: minorizatutako hizkuntza aurrerabidera eramatea da, eskubide guztiak bermatzeko.
3. Sententzia horiek bereziki eragiten diete udalerrri euskaldunei, horietan ari baitira hartzen euskaraz funtzionatzeko neurri gehien. Hori oztopo bikoitza da euskararen indarberritze-prozesuarentzat: batetik, galga jartzen diete euskara normalizatzeko neurri aurreratuenei, eta normalizazio-prozesuak badauka horren premia; bestetik, euskarak indar handiena duen lurralde-eremuei eragiten diete, eta gune horien premia gorria du euskarak. Udalerrri euskaldunek ezinbestekoa dute lege-babesa.
4. Udalerrri euskaldunetan, hainbat arlotan aurrera egin du euskarak hamarkada hauetan, baina oraindik bada zertan eragin. Udalean bertan ere urrats handiak egin ditu euskarak, eta gaur egun, zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza nagusia ere bada euskara. Horretan jarraitzeko asmo sendoa du Udalak, eta aurrerantzean ere martxan jarriko ditu bere esku dauden neurri eta plangintza guztiak. Euskara da gure udalerriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko konpromisoa dauka Udalak. Justiziazkoa da.
5. Udalak, asmo hori garatu ahal izateko, ezinbestekoa du lege-orube sendoa. Hortaz, Udalak dei hau egin nahi die lege-araudia garatzeko eskumena duten gainerako erakunde guztiei: nork ere eskumenekin eta elkarlana oinarritzat hartuta, urra dezagun bidea euskararen indarberritze-prozesua lege-babes sendoarekin hornitzeko.
6. UEMAk bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4an Bilbon antolatutako manifestazioarekin, eta epai honek beste arrazoi bat jarri du kalera ateratzeko: euskararen aurkako oldarraldia eten egin behar da. Horregatik, UEMAk kide den heinean, euskararekin bat egiteko eta Bilboko mobilizazioan parte hartzeko deia egiten die Udalak herritarrei.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Roteta, Arrikarte, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gauzak horrela, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**Erregu eta galderak.**

Bitarteko Idazkariak hitza hartu du. Gaur bertan alkate andreak bando hau onartu du:

BANDOA, 2023KO URRIAREN 24KOA, ALKATE ANDREARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAN 2023ko URRIAREN 25ERAKO ETA ABENDUAREN 19RAKO DEITUTAKO GREBAK DIRAUEAN BITARTEAN ERKIDEGOARI EMAN BEHAR ZAIZKION EZINBESTEKO ZERBITZUAK MANTENDUKO DIRELA BERMATZEN DUENA.

GIZARTE ZERBITZUAK :

- E.E.L.Z. ETA BETANI ZERBITZUAK OSOTASUNEAN EGINGO DIRA.
- LARRIALDI EGOERA BATEN AURREAN: SFUS EDO SOS DEIAK.

IDAZKARITZA:

- SFUS EDO SOS DEIAK egiteko koordinazioa: 09:00tik 14:00 arte (ordu horietatik kanpo, SFUS edo SOS DEIAK telefonoetara deitu beharko da zuzenean): 943 224411 eta 112
- Erregistro Orokorra: Idazkaritzako langile bakar batekin, 09:00tik 14:00 arte.
- Udal errolda agiriak ematea: justifikatzen bada erakunde publiko baten aurrean azken eguna dela hori aurkezteko; Idazkaritzako aurreko funtsezko zerbitzuaren langile berarekin, 09:00tik 14:00 arte.

ZERBITZU TEKNIKO ETA BRIGADA:

- Larrialdietako zerbitzuak, besteak beste: eraisketak, lurjauziak, Betani eraikin publikoan larrialdietako konponketak (argia, ura, gasa), gas edo ur hodiak lehertu, eta antzeko egoerak ematen badira: 943691907 (Idazkaritza).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

Eta azertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:42 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Bitarteko Idazkariak.

Asteasun, 2023ko urriaren 24an.

Bitarteko Idazkariak

Jon Gil Beltza



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SINAb9dfbaf0-d4e5-40a9-b31d-3d3216db7ed5**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01410>

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01410>



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Udalbatzarreko akta 2023.10.24

**CSV/EKS:**

SINAb9dfbaf0-d4e5-40a9-b31d-3d3216db7ed5